Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko martxoaren 11, osteguna — 47 — Jueves, a 11 de marzo de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## UZUE MANKOMUNITATEA

*Iragarkia*

Uzue Mankomunitateko Kudeaketa Batzordeak, 2021eko otsailaren 22an egindako bileran, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituen:

*Lehena:* 2021erako Uzue Mankomunitateko langileen lan eskaintza publikoa onartzea, I eranskinean agertzen den arabera.

*Bigarrena:* Euskaltegiko irakasle-funtzionario plaza bat lehiaketa-oposizio bidez betetzeko eta lan-poltsa osatzeko deialdia arautuko duten oinarriak onartzea; titulazioari dagokionez A2 taldean sartutako egongo da funtzionario plaza hori. Oinarri hauek II. eranskinean agertzen dira.

*Hirugarrena:* Uzue Mankomunitate honetan hutsik dagoen euskaltegiko irakasle plaza, funtzionarioari zuzendua, lehiaketa-oposizio bidez betetzeko aukeraketa probetarako deia egitea, beti ere lehen onartutako oinarrien arabera.

Urretxu, 2021eko otsailaren 23a.—Igor Zubillaga Aguado, lehendakaria. (1459)

I ERANSKINA

*2021erako Lan Eskaintza Publikoa. Karrerako funtzionarientzako lanpostuak.*

Eskala: Administrazio bereziko.

Azpi-eskala: zerbitzu bereziak.

Titulazio maila: A2.

Lanpostuaren izena: Euskaltegiko irakaslea.

Lanaldia: % 100.

O.M.D.: 207/90:19.

Lanpostu hutsak: 1.

II ERANSKINA

*Urretxu eta Zumarragako Udal Euskaltegia Mankomunitatean euskara irakasle lanpostu bat betetzeko eta lan poltsa osatzeko deialdia arautuko duten Oinarriak.*

1. *Xedea eta arau orokorrak.*

Oinarri hauen xedea Urretxu eta Zumarragako Udal Euskaltegia Mankomunitatean hutsik dagoen euskara irakasle lanpostu bat betetzea da. Hautaketa egiteko prozedura: Lehiaketa-oposizioa, deialdi irekia.

Lanpostuaren kategoria Teknikari Profesionala izango da (A2 taldea) eta lan-jardunaldia eta lan-egutegia Udal Euskaltegian ohikoak izango dira. C2 euskara-maila dagokio. Hileko soldata Udalhitzen 14,22 maila izango da (OM 19 207/1990 Dekretua).

Hautatutako lehiakideak funtzionario lanpostua beteko du.

## MANCOMUNIDAD UZUE

*Anuncio*

La Comisión Gestora de la Mancomunidad Uzue, en sesión celebrada el 22 de febrero de 2021, adoptó, entre otros, los siguientes acuerdos:

*Primero:* Aprobar la oferta pública de empleo de la Mancomunidad Uzue para el año 2021, según el tenor del anexo I.

*Segundo:* Aprobar las Bases que han de regir la convocatoria para la provisión por el sistema de concurso-oposición de una plaza de profesor/a funcionario/a y para la creación de una bolsa de trabajo. La plaza de profesor/a del euskaltegi, correspondiente al nivel de titulación equivalente a la clasificación A2. Bases recogidas en el anexo II.

*Tercero:* Convocar pruebas selectivas para proveer por el procedimiento de concurso-oposición la cobertura de la plaza de profesor/a de euskaltegi reservada a personal funcionario vacante en esta Mancomunidad con arreglo a las Bases anteriormente aprobadas.

Urretxu, a 25 de febrero de 2021.—El presidente, Igor Zubillaga Aguado. (1459)

ANEXO I

*Oferta Pública Empleo 2021. Puestos reservados a funcionarios de carrera.*

Escala: Administración Especial.

Subescala: Servicios especiales.

Nivel de Titulación: A2.

Denominación del puesto: Profesor/a de euskaltegi.

Jornada: 100 %.

O.M.D.: 207/90:19.

Plazas vacantes: 1.

ANEXO II

*Bases reguladoras de la convocatoria de una plaza de profesor de euskara y la creación de una bolsa de trabajo para la Mancomunidad Urretxu-Zumarraga Udal Euskaltegia.*

1. *Objeto y normas generales.*

Es objeto de la presente convocatoria de pruebas selectivas, la cobertura de una plaza vacante de profesor titular de la Mancomunidad Urretxu-Zumarraga Udal Euskaltegia, a través de Concurso-Oposición libre.

La categoría del puesto es de Técnico Profesional (Grupo A2), y le corresponde el perfil C2 con carácter preceptivo, con la jornada y el calendario laboral habituales del Euskaltegi y con la retribución mensual resultante de aplicar el nivel 14,22 del Udalhitz. (C.D. 19- Decreto 207/1990).

El/la aspirante seleccionado/a se incorporará al puesto como funcionario/a.

EK\CV GAO-I-2021-01459

Ariketa baztertzaileak gainditu eta deitutako lanpostu-kopurua gainditzen duten hautagaien zerrendak lanpostu berean edo antzekoetan sor daitezkeen behin-behineko langile-premiak osatzeko erabiliko dira. Horretarako lan-poltsa bat sortuko da, gaur egun euskaltegiak behin-behineko kontratazioak egiteko duen lan-poltsaren kalterik gabe, azken honek lehentasuna izango baitu.

Deialdi honetan interesa duen edonork parte hartu ahal izango du, beti ere 3. oinarrian ezarritako baldintzak betez gero.

*2. Eginkizunak.*

2.1. Euskara-klaseak ematea udal euskaltegian, edo erakundearen antolaketaren eta sortutako talde eta premien arabera erabaki daitekeen beste edozein tokitan.

2.2. Ikasturtearen antolaketan parte hartzea.

2.3. Ikasturte hasieran mailako probak prestatu eta zuzentzea, diagnostikoa egitea.

2.4. Ebaluazio jarraitua egitea, baita ikasturte erdiko eta bukaerakoa ere, eta dagozkien txostenak idaztea.

2.5. Eman beharreko mailaren ikasturtea planifikatzea.

2.6. Eskolak programatu eta prestatzea, horretarako egokienak diren irizpide pedagogikoen arabera.

2.7. Material didaktikoa moldatu, sortu, antolatu eta eguneratzea.

2.8. Irakasle klaustroaren bileretan, koordinazio eta ebaluazio bilera eta bilera pedagogikoetan parte hartzea.

2.9. Euskaltegiaren curriculum proiektuan parte hartzea.

2.10. Lanposturako gaitasuna mantentzea, profesionalentzako ikastaroetan parte hartuz.

2.11. Kanpo-ebaluazioetan aztertzaile lanak egitea.

2.12. Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea.

2.13. Euskaltegiko jardunarekin zerikusia duten arloen ardura banaketan parte hartzea.

2.14. Bere prestakuntzari eta lan-kategoriari lotuta agintzen zaizkion beste edozein eginkizun.

*3. Hautagaien baldintzak.*

Onartua izateko eta lehiaketa-oposizioan parte hartu ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko dira:

3.1. Espainiako edo Europar Batasuneko kide diren beste edozein estatutako herritartasuna izatea, edo bestela, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estutuak berretsitako nazioarteko Itunen bat aplikatzearen ondorioz, langileen joan-etorri askea ezarrita duen estaturen batekoa izatea. Espainiarren ezkontideek eta Europar Batasuneko gainerako estatuetako herritarren ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute lehiaketa honetan, baldin eta zuzenbidez banatuta ez badaude. Horien oinordekoek, eta ezkontideen oinordekoek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta zuzenbidez banatuta ez badaude eta hogeita bat urte baino gazteagoak baldin badira, edo bestela, adin horretatik gorakoak izanik, haien kontura bizi baldin badira. Hori guztia Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilearen 57. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

3.2. Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean, hamasei (16) urte beteta izatea, eta halaber, nahitaez erretiroa hartzera behartzen duen adina bete gabe izatea.

3.3. Dagokion titulua edukitzea edota berau eskuratzeko beharrezkoak diren eskubideak ordainduta izatea. Unibertsitateko Gradua, diplomatura edo baliokidearen jabe izatea.

La lista de aspirantes que, habiendo superado los ejercicios eliminatorios, excedan del número de plazas convocadas, se utilizarán para cubrir necesidades de personal no permanente en puestos idénticos o similares: a tal efecto se completará una Bolsa de Trabajo; sin perjuicio de la lista que actualmente el Euskaltegi tiene para efectuar contrataciones temporales que tendrá carácter preferente.

A la convocatoria podrán presentarse todas aquellas personas interesadas, sin más limitación que la de cumplir con las condiciones establecidas en la Base 3.

*2. Funciones.*

2.1. Impartir clases de euskara en el Euskaltegi municipal, u otra ubicación que se establezca, en función de la organización propia del ente y a la vista de los grupos y necesidades surgidas.

2.2. Participar en la organización del curso.

2.3. Preparar y corregir pruebas de nivel de inicio, realizar diagnóstico.

2.4. Realizar evaluación contínua, intermedia y final, con sus correspondientes informes.

2.5. Planificar el curso lectivo del nivel que impartir.

2.6. Programar y preparar las clases, según los criterios pedagógicos más apropiados para dicha actividad.

2.7. Adaptar, crear, organizar y actualizar el material didáctico.

2.8. Participar en las reuniones del claustro de profesores y en sesiones de coordinación, evaluación y pedagógicas.

2.9. Participar en la elaboración del proyecto curricular del Euskaltegi.

2.10. Mantener su aptitud para el puesto, participando en cursos dirigidos a profesionales del ámbito.

2.11. Realizar trabajos de examinador /a en evaluaciones exteriores.

2.12. Participar en actividades extraescolares.

2.13. Participar en el reparto de responsabilidades de los ámbitos relacionados con la actividad del Euskaltegi.

2.14. Todas aquellas funciones que se le encomienden de acuerdo con su formación y categoría profesional.

*3. Condiciones de los/las aspirantes.*

Para ser admitido/a y, en su caso, tomar parte en el Concurso-Oposición, serán requisitos necesarios:

3.1. Tener nacionalidad española o la de cualquier otro Estado miembro de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados Internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por España, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores y trabajadoras. También podrán tomar parte el o la cónyuge de los españoles y de los nacionales de otros Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no estén separados de derecho y sus descendientes y los de su cónyuge siempre que no estén separados de derecho, y sean menores de veintiún años o mayores de dicha edad dependientes. Todo ello según lo dispuesto en el art. 57 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.

3.2. Tener cumplidos dieciséis (16) años y no exceder, en su caso, de la edad máxima de jubilación forzosa en la fecha en que finalice el plazo de presentación de instancias.

3.3. Estar en posesión o haber abonado los derechos para obtener la titulación correspondiente. Grado universitario, diplomatura o equivalente.

EK\CV GAO-I-2021-01459

Dena den, HABEk, hala zegokionean, euskaltegietako irakasleentzat deitutako homologazio-probak gainditu zituzten hautagaiak ere onartuko dira, 1984ko ekainaren 8ko Aginduari jarraiki.

3.4. Euskarako C2 maila izatea, Eusko Jaurlaritzaren 48/2009 Dekretuan zehaztutako edozein titulu dela ere. Orobat, ontzat hartuko dira Eusko Jaurlaritzaren 47/2012 Dekretuaren 2. xedapen gehigarriaren arabera C2 egiaztatzetik salbuesten duten titulazioak.

3.5. Lanpostuari lotutako eginkizunak betetzea eragotzi diezaieketen gaixotasun edota akats fisikorik ez izatea. Tokatzen denean, dagokion azterketa medikua eginez egiaztatu beharko da puntu hau.

3.6. Administrazio Publikoko zerbitzuetatik aldenduta ez egotea diziplinako espediente bidez, ezta funtzio publikoko jardunetarako ez gaitua egotea ere.

3.7. Indarrean dagoen araudiaren arabera, legezko ezgaitasun edo bateraezintasun kasuren batean ez egotea, beti ere legeak ematen duen aukeratzeko eskubidea alde batera utzita.

Hautagaiek baldintza guztiak bete beharko dituzte deialdian parte hartzeko eskabideak eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen.

*4. Eskabideak.*

Eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira. Eredua Urretxu-Zumarragako Udal Euskaltegian izango da eskuragai.

Hautaketa-prozesurako onartua izateko aurkezten diren eskabideak Uzue Mankomunitateko Lehendakariari zuzenduko zaizkio eta honako baldintza hauek bete beharko dituzte onartuak izan daitezen:

a) Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean, hirugarren oinarrian zehaztutako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute hautagaiek.

b) Halaber, lehiaketa-aldian baloratuko diren merituei buruzko datuen berri eman beharko dute eskabidean (ikastaroen edukia, iraupena, lan-esperientzia zehaztu beharko dira). Ez dira baloratuko eskabidean jasotzen ez diren merituak, ezta fedeemaile bidez egiaztatzen ez direnak ere.

Eskabidearekin batera, ondoko agiriok erantsiko dituzte:

— Nortasun-Agiriaren fotokopia edo identitatea eta nazionalitatea egiaztatzen dituen agiriarena, beste estatu bateko hautagaien kasuan.

— Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua.

— Eskatutako euskara maila lortua duela egiaztatzen duen jatorrizko dokumentua edota konpultsatutako fotokopia. Ikasketak direla eta, euskara-maila egiaztatzetik salbuetsita egonez gero, berriz, salbuespena gauzatzeko ziurtagiria, dagokion unibertsitateak emana. Euskarako azterketa egitetik salbuetsita geratzeko hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen dokumentazioa.

— Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten jatorrizko agiriak edota konpultsatutako kopiak izan beharko dute, lehiaketaren fasean baloratuak izan daitezen.

Laneko esperientzia HABEk egindako ziurtagirien bidez egiaztatu beharko da.

Prestakuntza osagarriari buruzko merezimendua egiaztatzeko agirian, haren iraupena zehaztu beharko du. Horrela izan ezean, Epaimahaiaren esku geratuko da merezimendu hori baloratu edo ez.

Eskabideak Uzue Mankomunitateko Erregistroan (Labeaga kalea, 40 A, 20700 Urretxu) aurkeztu beharko dira, 20 egun naturaleko epean, oinarri hauek *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen diren egunaren biharamunetik kontatuta.

En todo caso serán admisibles los candidatos que en su día hubieren superado las pruebas de homologación convocadas por HABE para profesores de euskaltegis, tal y como se recoge en la Orden del 8 de junio de 1984.

3.4. Estar en posesión del nivel C2 de euskera, con cualquiera de los títulos que se especifiquen en el Decreto 48/2009 del Gobierno Vasco. Asimismo, se aceptarán las titulaciones que, según la disposición adicional segunda del Decreto 47/2012 del Gobierno Vasco, están exentas de acreditar el C2.

3.5. No padecer enfermedad ni defecto físico que impida el normal desempeño de las funciones propias del puesto. Este extremo habrá de acreditarse en su momento mediante el oportuno reconocimiento médico.

3.6. No haber sido separado/a, mediante expediente disciplinario, del servicio de cualquier Administración Pública, ni hallarse inhabilitado para el ejercicio de funciones públicas.

3.7. No estar incurso/a en ningún caso de incapacidad o de incompatibilidad legal, según la normativa vigente, dejando a salvo el derecho de opción que esta le otorgue.

Los/las aspirantes deben reunir los requisitos antes de la finalización del plazo de entrega de las instancias de solicitud de admisión en la convocatoria.

*4. Instancias.*

Las instancias se ajustarán al modelo oficial y normalizado. El modelo será facilitado en el Euskaltegi Municipal de Urretxu-Zumarraga.

Las instancias solicitando ser admitido/a en el proceso selectivo se dirigirán al Presidente de Uzue Mankomunitatea, debiendo reunir los siguientes requisitos para no ser rechazadas:

a) Las personas aspirantes deberán manifestar que reúnen todos y cada uno de los requisitos enumerados en la base tercera al día de finalización del plazo de presentación de instancias.

b) Asimismo, deberán hacer constar los datos referentes a los méritos (especificando contenido, duración etc. de los cursos, experiencia profesional etc.) que se valorarán en la fase de Concurso. No serán objeto de valoración aquellos que no se detallen en la instancia y que no se acrediten fehacientemente.

Junto con la instancia, deberán presentar la siguiente documentación:

— Fotocopia del documento de identidad o de documento acreditativo de la identidad y nacionalidad en el caso de las personas aspirantes de otro estado.

— Fotocopia compulsada del título exigido para poder participar en la convocatoria.

— Documento original o fotocopia compulsada del documento que acredite el cumplimiento del perfil de euskera exigido. Si, debido a los estudios realizados, la persona aspirante estuviera exenta de certificar su nivel de euskera, certificado para ejecutar la exención del examen de euskara, expedido por la universidad correspondiente.

— Documentos originales o copias compulsadas que acrediten los méritos alegados en la instancia, al objeto de su valoración en la fase de concurso.

La experiencia profesional deberá acreditarse por medio de certificados expedidos por HABE.

En la documentación que se presente para acreditar el mérito referente a la formación complementaria, deberá especificarse la duración de esta. En caso contrario, quedará en manos del Tribunal valorar o no ese mérito.

Las instancias se presentarán en el Registro de Uzue Mankomunitatea situada en la C/ Labeaga, número 40 A, 20700 Urretxu, dentro del plazo de 20 días naturales contados a partir del siguiente al de publicación de las presentes bases en el *Boletín Oficial del Estado*.

EK\CV GAO-I-2021-01459

Era berean, eskabideak Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, edozein modutan aurkeztu ahal izango dira. Kasu horretan, dagokion funtzionarioak eskabideak aurkezteko epean data eta zigilua ipini beharko die. Horrela eginez gero bakarrik ulertuko da eskabideak aipatu erregistroetan sartutako egunean izan dutela sarrera mankomunitateko Erregistro Orokorrean. Zigiluak eskabidean bertan egon behar du.

5. *Hautagaiak onartzea.*

Eskabideak aurkezteko epea amaituta Lehendakaritzaren Ebazpenaren bidez onartu eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartuko da eta baztertzeko arrazoiak azalduko dira bertan eta zerrenda Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da eta Uzue Mankomunitateko iragarki taulan jarriko da ikusgai.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 68. artikuluan ezarritakoaren arabera, aipatutako zerrenda behin behineko horretan baztertutzat ageri diren hautagaiei hamar (10) egun baliodunekoa epea emango zaie, zerrenda hori aipatutako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, baztertuta kausatu duten akatsak edo omisioak zuzentzeko.

Halaber, ebazpen horretan adieraziko dira epaimahaiko kide titularren eta ordezkoen izendapena eta lehen ariketa egiteko lekua, eguna eta ordua.

Erreklamaziorik egon ezean, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da. Erreklamaziorik egongo balitz, onetsiak edo gaitzetsiak izango dira behin betiko zerrenda onartzen duen beste ebazpen baten bidez eta hori lehen adierazitako modu berean argitaratuko da.

Behin-behineko zerrendetan baztertuak izanik zerrenda horien aurkako erreklamazioak epearen barruan aurkeztu dituzten izangaiek probak egin ahal izango dituzte, kautela gisa, baldin eta jarritako erreklamazioa egun horretarako erabaki ez bada. Era berean, behin betiko zerrendetan baztertuak izan diren izangaiek ere probak egin ahal izango dituzte, kautela gisa, baldin eta baztertzearen aurka errekurtsoa jarri izana egiaztatzen badute eta probaren egunerako ez bada erabaki errekurtsoa.

Halaber, eta 4. oinarriko c) puntuan zehaztutakoari jarraituz, aurrez horrela egiaztatu dutelako hizkuntza eskakizunaren azterketa egin behar ez dutenen behin behineko zerrenda argitaratuko da iragarki-taulan. 10 egun naturaleko epea utziko da erreklamazioak egiteko. Zerrenda hauek behin betikoak izango dira erreklamaziorik ez badago.

6. *Epaimahai kalifikatzailea.*

Epaimahai kalifikatzailea honela osatuko da:

Lehendakaria:

— Urretxu-Zumarraga Udal Euskaltegiaren zuzendaria.

Epaimahaikideak:

— HABEk izendatutako teknikari bat.

— Zumarraga eta Urretxuko euskara zerbitzuetako ardura dunak.

Idazkaria:

— Uzueko administraria.

Egoki irizten den probetan, Epaimahaiak dagokion gaian adituak diren aholku-emaileen laguntza eskatu ahal izango du; aholkulari aditu horiek hitza bi baina botoa emateko eskubiderik ez dute izango. Aholkulariek beren espezialitate teknikoetan solik lagundu ahal izango dute.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen 39/2015 Legeak kide anitzeko organoez jasotzen dituen xedapenetara egokitu beharko du epaimahaiak bere jarduera.

Igualmente, las instancias podrán presentarse en cualquiera de las formas señaladas en el art. 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. En tal caso, deberán ser fechadas y selladas por la persona funcionaria correspondiente dentro del plazo de presentación de instancias. Sólo en este caso se entenderá que las instancias han tenido entrada en el Registro General de la mancomunidad en la fecha en que fueron entregadas en los mencionados Registros. Es la instancia la que debe estar sellada.

5. *Admisión de aspirantes.*

Una vez finalizado el período de presentación de instancias, mediante Resolución de Presidencia se aprobará la relación provisional de aspirantes admitidos/as y excluidos/as, con indicación en su caso de las causas de exclusión, y dicha relación se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y será expuesta en el tablón de anuncios de la mancomunidad Uzue.

De conformidad con el artículo 68 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, a las personas aspirantes que figuren como excluidas en la citada relación provisional se les concederá un plazo de diez (10) días hábiles, contados a partir del día siguiente al de la publicación de aquella en el referido BOLETÍN OFICIAL, para subsanar los errores y omisiones que hubieran motivado la exclusión.

Asimismo, en dicha resolución se indicará la designación de los miembros titulares y suplentes del Tribunal Calificador, así como el lugar, fecha y hora de comienzo del primer ejercicio.

La lista provisional, se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se presentaran reclamaciones. Si las hubiera, serán estimadas o desestimadas, en su caso, en una nueva resolución por la que se apruebe la lista definitiva que se hará pública de la misma forma que la anterior.

Las personas excluidas en las listas provisionales que hubieran presentado reclamación en plazo contra las mismas, podrán presentarse con carácter cautelar a la realización de las pruebas, si para dicha fecha no se ha resuelto la reclamación planteada. Asimismo, las personas excluidas en las listas definitivas, podrán presentarse a la realización de las pruebas con carácter cautelar, siempre y cuando acrediten haber presentado el oportuno recurso contra su exclusión, y si para dicha fecha no se ha resuelto el mismo.

Asimismo, se publicará en el Tablón de anuncios una lista provisional de candidatos excluidos de la prueba de perfil lingüístico por haberlo previamente acreditado de acuerdo con lo previsto en la base 4.ª punto c) concediéndose un plazo de 10 días naturales para reclamaciones. Igualmente, dichas listas se elevarán a definitivas si no se producen reclamaciones.

6. *Tribunal calificador.*

El Tribunal calificador estará compuesto de la siguiente forma:

Presidente:

— El director de Urretxu-Zumarraga Udal Euskaltegia.

Vocales:

— Un/a técnico/a designado por HABE.

— Los/as responsables del área de euskara de los Ayunta mientos de Zumarraga y Urretxu.

Secretario/a:

— Administrativa de Uzue.

En las pruebas en que lo considere conveniente, el Tribunal podrá recabar la colaboración de asesores/as expertos/as en la materia de que se trate, con voz pero sin voto. Los/las asesores/as se limitarán a prestar colaboración en sus especialidades técnicas.

La actuación del Tribunal se ajustará a las disposiciones que sobre órganos colegiados dispone la Ley 39/2015, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Epaimahaia ezingo da eratu eta ezingo du jardun kideen erdiak baino gehiago etorri ez badira; nolanahi ere, Lehendakariak eta Idazkariak bertan egon beharko dute beti. Erabakiak hartzeko, botoen gehiengoa beharko da, eta berdinketarik bada, lehendakariaren botoak erabakiko du. Epaimahaiko Idazkariak ez du botoa emateko eskubiderik izango.

Epaimahaikideek parte hartzeari uko egin nahi badiote, Lehendakaritzari jakinarazi beharko diote, eta izangaiek epaimahaikideak arbuiatu ditzakete, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 23 eta 24 artikuluei jarraiki.

Epaimahaiak, inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipio gidariek bideratuta, erabateko independentziaz, diskrezio teknikoaz eta objektibotasunez jardungo du, eta haren proposamenek organo eskuduna lotuko dute, izendatzeko unean.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo du, betiere prozeduraren legezkotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izanez. Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, honako oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu eta lehia- keta-oposizio honen nondik norakoak ordena onean burutzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuei buruz hartu beharreko irizpideak ezarriz.

Epaimahaiak dagozkion neurriak hartuko ditu ariketa idatzien edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko, baita ariketak zuzentzeko ere, ahal den guztietan, eta saiatuko da inork ez jakiten parten hartzen duten pertsonen izenak.

*7. Oposizio- aldiko ariketak.*

Lehenengo ariketaren deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Uzue mankomunitateko Iragarki Taulan argitaratuko da onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendarekin batera, eta bertan azterketa eguna, ordua eta tokia zehaztuko dira. Gainontzeko ariketen deialdiak Uzue mankomunitateko iragarki taulan iragarriko ditu Epaimahaiak.

Deialdi bakarra egingo da ariketa bakoitzerako, behar den bezala justifikatutako ezinbesteko kausak adierazi eta epaimahaiak aintzat hartzen dituenean izan ezik.

Ariketa gainditzeko minimoari dagokionez, epaimahaiak ariketa egin ondoren erabaki ahal izango du non ezarri ebaketa-puntua.

Oposizio-aldian honako ariketa hauek izango dira:

— Lehen ariketa:

Idatzia. Nahitaezkoa eta baztertzailea. Idatzizko ariketa hau Epaimahaiak zehaztutako gehienezko epean egin beharko da. Izangaiek eranskinean jasotako gaietan oinarritutako iritzi-artikulu bat idatzi beharko dute helduen euskalduntzearen metodologia kontuan hartuta.

Idatzia ebaluatzean, kontuan hartuko da: testuarekiko eta testuinguruarekiko egokitasuna, koherentzia eta kohesioa. Hizkuntza-baliabideen zuzentasuna eta aberastasuna.

Proba honek 50 puntuko balioa izango du, eta, gutxienez 25 puntuko emaitza lortu beharko da gainditzeko.

— Bigarren ariketa:

Elkarrizketa pertsonala. Derrigorrezkoa eta baztertzailea izangaiak lanpostuaren ezaugarrietara zein neurritan egokitzen diren egiaztatzeko. 0tik 10era bitartean baloratuko da. Epaimahaiak egoki irizten dionean adieraziko du ariketa gainditzeko zenbat puntu atera beharko diren.

— Hirugarren ariketa: Euskarako C2 mailako proba.

Derrigorrezkoa eta baztertzailea. HAEEk diseinatutako idatzizko eta ahozko proba batzuk egitean datza. «Gai» edo «Ez-gai» kalifikatuko da. Azterketa HAEEk bere deialdi bateratuan proposatzen duen egunean eta lekuan izango da.

El Tribunal no podrá constituirse ni actuar sin la asistencia de más de la mitad de sus miembros, debiendo estar presentes, en todo caso, quienes ostentan la Presidencia y la Secretaría. Las decisiones se adoptarán por mayoría de votos, resolviendo, en caso de empate, quien actúe como Presidente. La secretaria del Tribunal no tendrá facultad de voto.

Los/las miembros del Tribunal deberán abstenerse de intervenir, notificándolo a la Presidencia, y las personas aspirantes podrán recusarles, conforme a lo establecido en los artículos 23 y 24 de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público.

El Tribunal guiado por los principios rectores de imparcialidad y profesionalidad, actuará con plena independencia, discrecionalidad técnica y objetividad, y sus propuestas vincularán al órgano competente para el nombramiento.

El Tribunal Calificador actuará con plena autonomía funcional, velando por la legalidad del procedimiento y siendo responsable de garantizar su objetividad. Asimismo, de acuerdo con el ordenamiento jurídico, resolverá todas las dudas que pudieran surgir en la aplicación de las bases y tomará los acuerdos necesarios para el buen orden en el desarrollo del presente concurso-oposición, estableciendo los criterios que deban adoptarse en relación con los supuestos no previstos en aquellas.

El Tribunal adoptará las oportunas medidas para garantizar la confidencialidad del contenido de los ejercicios escritos, así como de los que sean corregidos, siempre que sea posible, procurando que no se conozca la identidad de las personas que toman parte.

*7. Ejercicios de la fase de oposición.*

La convocatoria del primer ejercicio se publicará junto con la lista provisional de las personas admitidas y excluidas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y en el Tablón de Anuncios la mancomunidad Uzue, indicando fecha, hora y lugar de celebración del examen. Los posteriores ejercicios serán anunciados por el Tribunal en el Tablón de Anuncios de Uzue.

Los/las aspirantes serán convocados/as para cada ejercicio en llamamiento único, salvo causas de fuerza mayor debidamente justificadas y libremente apreciadas por el Tribunal.

En relación con el mínimo para superar el ejercicio, el Tribunal una vez realizada la prueba podrá determinar dónde sitúa el punto de corte.

La fase de oposición constará de los siguientes ejercicios:

— Primer ejercicio:

Escrito. De carácter obligatorio y eliminatorio. Este ejercicio escrito deberá realizarse en el plazo máximo determinado por el Tribunal. Los/las candidatos/as deberán redactar un artículo de opinión basado en los temas recopilados en el anexo, siguiendo la metodología empleada en la euskaldunización de personas adultas.

Al evaluar el escrito se tendrá en cuenta: la adecuación al texto y al contexto. La coherencia y cohesión; la corrección y riqueza de los recursos lingüísticos.

Esta prueba se valorará con 50 puntos y para superarla será necesario obtener un resultado de al menos 25 puntos.

— Segundo ejercicio:

Entrevista personal. Obligatoria y eliminatoria, en la cual se comprobará el nivel de adecuación de los candidatos a las características del puesto de trabajo. Se valorará de 0 a 10 puntos. El Tribunal anunciará, cuando lo considere oportuno, cuál es la puntuación mínima para aprobar el ejercicio.

— Tercer ejercicio: examen de nivel de euskera C2:

De carácter obligatorio y eliminatorio. Consistirá en pruebas orales y escritas diseñadas por el IVAP. La calificación será «Apto» o «No Apto». El examen se realizará en el lugar y la fecha propuesta por el IVAP en su convocatoria unificada.

Ez dute proba hau egin beharrik izango hemen eskatzen den hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen agiriaren jabe diren izangaiek.

Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 24ko 48/2009 Dekretuak, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzeko Dekretua aldatzen duenak, zehaztutakoari jarraituz, dagokion erakundeak emandako egiaztagiria aurkezten dutenek ez dute ariketa hau egin beharrik izango, ezta Eusko Jaurlaritzaren 47/2012 Dekretuaren 2. xedapen gehigarriaren arabera C2 egiaztatzetik salbuetsita daudenek ere.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 43.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, izangai guztietatik inork ez badu C2 hizkuntza maila egiaztatzen, hautaketa prozesua gainditzeko C1 maila egiaztatu beharko dute izangaiek.

8. *Lehiaketa- aldiko merituak.*

Oposizio-aldia gainditzen duten izangaiak lehiaketa-aldira pasatuko dira eta bertan Epaimahaiak honako meritu hauek baloratuko ditu, baldin eta eskabidean horrela zehaztu badira, 4. oinarriaren b) atalean jasotzen denarekin bat etorriz.

a) Prestakuntza (gehienez, 10 puntu).

– Gradua edo lizentziatura Euskal Filologia, Euskal Ikasketetan, Psikopedagogia edo Pedagogia alorrean: 3 puntu.

– Irakasle-ikasketak Euskal Filologia alorrean: 2 puntu. Ez da kontuan hartuko Euskal Filologiako lizentziatura edo gradua ere aurkeztuz gero.

– Doktoregoa Euskal Filologia edota Hizkuntzen ikas-irakaskuntza alorrean: 1 puntu.

– Masterra Euskal Filologia edota Hizkuntzen ikas-irakaskuntza alorrean: 1 puntu.

– Hizkuntzen ikas-irakaskuntza edota didaktika-pedagogiarekin zerikusi zuzena duten ikastaroengatik: 30 orduko multzo bakoitzeko, 0,15 puntu, gehienez puntu 1.

